

Beste munduko ikuspenak Nafarroako erromanikoan

(Zeru-infernuen irudikapenak eta bekatu bakoitzari dagozkion zigorrak XII. mendean eta XIII. mendearen lehen erdian)*

ARAGONÉS ESTELLA, Esperanza

Artearen Historian doktorea
Carlos III, 26 - 4. ezk.
31003 - Iruñea

BIBLID [1137-1951 (1997), 1; 93-97]

E

san izan da Zuzenbidea hizkuntza mota berezi bat dela, bitarteko moduan hitzak erabiltzen dituen neurrian. Ordea, Esperanza Aragonesen lan eder honetan hitzek balio dute irudiei azalpen egokia ematen dieten neurrian. Irudiok, baina, badute izan, zuzenbidearekin ahaidetasunik. Irudi eta hitzon bitartez, aldizkariak, janzkera dotoreagoa hartzeaz gain, irakurleari aipatu ahaidetasun horren berri eman nahi dio. Autoreak defendatzen duen lez, Behe Erdi Aroan, "bekatu bakoitzari aplikatzen zaizkion zigorrak garai hartako zuzenbidean hein batean bizirik zirauen tradizio biblikoari dagozkio". Hortik aurrera, irakurleak berak juja beza zuzenbideak eta irudikapenak ba ote duten zerikusirik.

Estatuagintza erromanikoan arimak irits dezakeen azken destinoa bikoitza da: betiko salbazio-lekua eta betiko kondenazio-lekua. Ordea, XII. mendearen amaierarako, hirugarren leku bat moldatzen hasia zen, nahiz eta arteari dagokionean ez zuen inoiz forma jakinik hartu; leku hori Purgatorioa edo Garbitokia zen, hain zuzen. Bekatuen espiaziorako gune horren aurkikuntzak arindu egin zuen gizakiaren zama mundutierra. Modu horretara, erremediorik gabeko kondenazioari itzuri egin ahal izango baitzion bekatariak ordutik aurrera. Garbitokiaren sorrera hildakoen oroitzenari estuki lotuta agertzen da, eta, 1024-1033 urte bitartean, Cluny-tik proposatutako *Saindu Guztien* egunak sendotu egin zuen sinesmen hura. Hilan aldeko mezak ospatzen hasi ziren orduan, arimak igaro-leku hartan zeuden bitartean, beren salbazioaren alde otoitz egin behar baitzen. Bestetik, literatura eskatologikoa, beren sorlekuetara itzultzen diren arima erratuen kontakizunez hornitzen da. Arima horiek ahaide, ezagun eta jauntxoiei eskatzen diete beraietaz arduratzeko, otoitz, meza eta amoinak emanaz zigorraldia laburtu eta Purgatoriotik atera ahal izateko. Horren lekuko Lizarrako menekoaren elezaharra: beste mundutik datorren morroiak bere nagusi zenari, Pedro Engelbertori, eskatzen dio zor zitzaion dirua bere arima salbatzeko mezak ospatzen erabil zezan. Elezahar horren berri ematen digu Pedro Agurgarriak *De miraculis* liburuaren bitartez. Ziurrenik, Cluny-tar gotzai horrek Naxeran entzungo zuen historia, 1042. urtean bertara egindako bisita batean. Kontakizun horren antzekoak dira errege eta enperadoreen arimen patuaz ziharduten garaiko beste zenbait narrazio. Ezagunenetakoa da Karlomagno enperadore

* Lan hau *Signos de identidad histórica en Navarra*, CAN, 1996, 259-307 orr. Liburan argitaratu artikuluaen moldaketa bat da. Ikus daiteke halaber, gai berari buruzko berri zabalagoak ematen dituen, *La imagen del mal en el románico navarro*, Iruñea, 1996, nire lana.

eta Teodoriko gotoen erregearena (Wetti-ren ikuspena). Ikuspen horietan herriaren justizia gosea asebetetzen da, erregek, giza eskubideak zapalduko bazituen, zigorraldi hartan bere hobenak garbitu egin beharko baitzituen.

Purgatorioa asmatzen lagundu zuen beste faktore bat bekatu benialentzako zigorra aurkitu beharra izan zen. Bekatu benialak izan zitezkeen: *txikiak*, *txikiagoak*, *xeheak*, *arinak* eta *egunerokoak*. Purgatoriorik ez zenean, huts horiek barkatzeko otoi-tza, limosna eta aitormenak zeuden; purgatorioa asmatzen denean berriz, bekatu mota horien espazio gune bihurtuko da hura, bai eta, aitortzea ahaztu den bekatuena eta, aitortuta ere, ezarritako penitentzia bete ez denean, garbitzeke geratu diren bekatuena ere.

Erromanikoaren irudikatze-tankeran beste munduko eremu biak elkarren ondoan errepresentatzen dira, Erdi Aroko prediku eta literaturan ezaguna den estrategiari jarraiki; hots, bi tokiak alde-alde jarri, bakoitza bereizteko edukiari erreparatu behar zaio. Nafarroako zenbait elizen portadatan, Lizarrako San Migelen, Zangozako Santa Marian eta Tuterako Judizioaren Atean, zeru-infernuen arteko aurkakotasuna agertzen zaigu. Zenbaitetan, Lizarra eta Zangozako kasuetan, bi eremuak irudikatzen dira (kondenatuak ere bertan errepresentatuta daudela), beste batzuetan, Tuteran esaterako, tinpanoa landu gabe dagoenez, Jainkoaren epaiketaren emaitza bakarrik ageri zaigu: kondenatuak eta aukeratuak. Larunben dagoen San Bizenteko landa-elizan zerua eta infernua, eta beste gai bibliko batzu elkarren ondoan irudikatzen dira sarrerako atarian. Beste elizetan bekatuaren ondorenak erakusten dira, infernu lazgarriak direla medio; hala nola, Artzeko Sortzez Garbiaren eliza, Etxanoko San Pedro eta Nabaskozeko Santa María del Campo, besteak beste.

ARIMAREN JUDIZIOA

Arima bakoitzaren epaiketa beharrezkoa da eremu biak bereizi eta begiztatu ahal izateko. Lizarrako San Migelen, esaterako, elkarren ondoan ageri dira portadako tinpano eta arkiboltetako ikuspen teofanikoa, hau da, zeruaren irudikatze hierarkizatua, eta santuei dedikatu arkiboltan azaltzen den bertutearen adibidea, bai eta bizioek okupatzen duten kanpo aldeko bekata. Paradisuaren eta bekatuaren izugarrikerien irudikatze horretatik abiatuta, San Migeli eskeinitako alboko erliebean, arimen pisua eta bertutearen edo bekatuaren bidea aukeratu dutenen azken patua begi kolpe batez jotzen ditu ikusleak (1. go irudia). Zangozako Santa Marian arimak pisatzen dituen goiaingerua tinpanoan bertan errepresentatzen da eta, Jainkoaren baimenarekin, gizakien lurreko bizitza epaitzen du; eliza bereko arkiboltetan, berriz, gizarte taldeei dagozkien eszenak eta haiek egindako bekatuak aurkezten dira. Larunbeto San Bizenten ere irudi kontrajarriak agertzen dira: Paradisuaren zoriona eta infernuaren zoritxarra San Migel balantzadun baten irudiaren alboetara. Hildakoaren ekintza onak eta txarrak balantzaren plater banatan jartzen dira eta bietako zein izan astunago, hildakoa salbatu edo kondenatu egingo da. San Juan Krisostomok (IV. mendea) honela adierazten du: "Egun horretan, zuen eginak, hitzak eta gogoetak bi plateretan ezarriko dira eta, alde batera edo bestera makurtuz, balantzak atzerazinezko epaia emango du". San Agustín (V. mendea) honela mintzo da judizioaz: "Egite onak eta txarrak balantzan esekita egongo dira, eta, gaiztoen multzoa nagusi bada, erruduna infernurantz eramango da arrastaka". Arima aukeratu eta kondenatuen artean bereizteko beste zenbait bitarteko ere baziren ikuspenen inguruko literaturan. Haietan gehien azaltzen dena zubiarena da: bertatik igarotzen dira arimak eta txango horretan erabakitzen da saria edo zigorra. Hildakoa arima zintzoa bada, arazorik gabe zeharkatuko du zubia, aldiz, kondenatua bada, zubia gero eta estuago egingo zaio eta suz eta piztiz betetako ibaira eroriko da. Zubi hori bera agertzen da ere San Pauloren ikuspenean (VI. mendean) eta San Gregorio Magnoren *Dialogo*-etan. Eskailera da hildakoen patua erabakitzeke beste bitarteko bat: lurretik zerurainokoa, erraz igoko dute arima zintzoek, baina inola ere ezingo dute igo bekatuaren zamapean daudenek. Horrela agertzen du Juan Climacoren *Salbazio Eskailera delakoak* (VII. mendea) eta, beranduago; Landsberg-eko Herrade-ren *Hortus Deliciarum* obran (XII. mende amaiera aldera). Beste zenbait ikuspenetan aukeratuen izenak horma batean idazten dira; hala agertzen da Emakume Pobreaken ikuspenean (IX. mendea), non salbatuen izenak zeruko horma batean baitaude idatzirik urrezko letrekin.

Herriaren erlijiojokeran judizioaren prozesu horrek beste munduari buruzko ele-zaharrak sortzeko bide ematen du. Halakoetan, jende xehearen eginak eta errege eta enperadoreenak ere epaitzen dira. Hildakoak salbazioa iritsi ohi du, pertsona xehea izanik, bizi bitartean burututako egintza on bati esker, eta, erregeren kasuan, Elizari egindako dohantza handiak direla eta. Ikuspen horietan Ama Birjina eta santuenganako debozioa hain da garrantzitsua, ezen pertsonaia horiek askotan, hildakoaren arimaren aldeko bitartekaritza lana egiten duten, eta baita arima pekataria salba dadin lortu ere.

Judizioa taxu moral desberdineko pertsonaia nahiz talde baten bereizketa-modu lez agertzen da Ebanjelioko parabola batzuetan. Hala nola, Lazaro eta Epulonen pasartean eta, baita, birjina zoro eta zuhurren parabolan ere. Lazaro eta Epulonen gaia usu ageri da plastika erromanikoan Europa guztian zehar; Nafarroan, Artaizko San Martineko portadatan (2. irudia) eta Tuterako klaustroan. Bigarren gaia, duen judizio eta berpizkunde edukiagatik, Nafarroako Blanca andreaken hilobian jasota dago, Naxeran. Azkenik, judizioari erreferentzia egiten dioten irudi-multzo gehienetan berpizkundera ageri ohi da, *Visitatio Sepulcri* gaiaren bidez (Lizarrako San Migelen, Zangozako Santa Marian), edo gai sinbolikoen bitartez, hala nola, Kristo infernuetara jeitsi zenekoa eta Isaak-en Sakrifizioa, Artaizen irudikaturik dagoena.

ZERUA ETA INFERNUA

Judizioaren ondoren datozten destino biak irudikatzen dira Abrahamen altzoaren bitartez, paradisia nahi bada irudikatu, eta, infernua errepresentatu nahi bada, Lebiatanen ahotzarraren bitartez. Paradisia sinbolizatzeko, Abraham dohatsuak bere altzoan hartzen ditu arima garbiak, Lazaro eta Epulonen parabolatik hartutako irudia da (Lukas 16, 19-31 Lizarrako San Migel elizako Lebiatanen ahoak ere jatorri Biblikoa du: Joben liburua (40, 10-41 eta 41, 1-26). Pasarte horietan itsas animalia izugarri eta ezin garaitua deskribatzen da: "Haren doministikuek suargia botatzen dute,

begie egunsentia bezala dirdir egiten. Eztarri zulotik zuziak irteten zaizkio, su-txinpartak ihes egiten. Kea dario sudurretik, borbor irakiten dagoen pertzetik bezala” (3. irudia). Bere aulkian lasai jarria den adineko giza irudiaren edertasun horri, arima kondenatuak su artean irensten dituen alimaleko masail-hezuraren izua kontrajartzen zaio. Bi tokiok oso modu desberdinez deskribatzen dituzte kontakizun eskatologikoeak, zeruari dagokionean, hiriko ikuspegia nagusi da: ateak, harresiak, egoitzak, dena gai noble eta disdiratsuz egina -urrea, zilarra, kristala...-. Natura ordenatuki emana dago eremu horretan, belardiak, loreak eta iturriak ageri direla bertan. Infernua irudikatzeke erabiltzen diren eraikinak aldiz, eskasak dira eta presondegi handi bat dakarte gogora, hala dorreek nahiz ziegek; gainera, natura desatsegina nagusi da infernua: amildegiak, mendi ilunak, ibai kirastunak, guztia haize bortitz eta euri-, elur- eta kazkabar-jasek astindua.

Bibliako testuak hala eskatzen duenez, eremu biak elkarren ondoan irudikatzen dira, modu horretara egiten ahal baitio Epulonek, infernuko oinazeetan murgilduta dagoen bitartean, bere eskari ezaguna Lazarori (Lukas 16, 23-31). Eremu biak hain daude hurbil, ezen arimek elkar ikus dezakete eta batak besteari hitzegiteko moduan daude; baina, amildegi gaindiezin bat ere bada bien artean: “Hilen Egoitzan oinazez zegoela begiak jaso eta Abraham ikusi zuen urruti, eta Lazaro haren ondoan. Orduan, deiadar egin zion: Aita Abraham erruki nitaz! Bidal ezazu Lazaro atzamar-muturra uretan busti eta niri mihia freskatzera, kiskaltzen nago eta sugarrotan! Baina Abrahamek erantzun: ..., leize handi bat dago zuen eta gure artean, nahita ere, hemendik, ez du inork zuengana igarotzerik, ezta hortik gugana ere”. Bibliak eta beste munduko ikuspeneak ere zerua hegoaldean kokatzen dute eta infernua iparralde hotzean. Infernua leize, putzu edo ibar ilun eta sakon baten hondoan dago gainera.

Eremu bateko eta besteko giroak ere guztiz aurkakoak dira. Beste munduko ikuspeneen deskribapena arras koloreduna izan ohi da, xehetasun handikoa, beti ere kontrastea adierazteko asmoz. Halatan, Paradisuko zorianik konplituena Jainkoari so egon ahal izatea da eta, infernuko zigorrak latzena hura ezin ikusia, hare lazgarriagoa dena satanen ikuskizuna dela eta.

AUKERATUAK ETA KONDENATUAK

Giro desberdinak aukeratuen eta kondenatuen arimak bizi diren markoa besterik ez dira. Horri, gehitu behar zaio bakoitzean giza-taldeek jasotzen duten tratu desberdina. Tuterako Judizioaren Ateari behako oso bat eman eta Paradisua geldi eta lasai ageri zaigu, infernuko mugimendu eta bortizkerien aurrean (4. irudia). Aukeratuak zutik daude, binaka, kontenplazio jarreran. Aingeruek portadaren lehen arkibolta okupatzen dute, koroaz eta aginte-makilaz horniturik, arimei harrera egiteko. Dobela batzutan koroa arimak agertzen dira. Aingeruen ostean igarleak daude, filakteria eta guzti, Erredentzio mezua zabaltzeko jarriak. Ondoko arkiboltan berriz, martiriak irudikatzen dira, beren palma hostoekin, gizaki guztientzat santutasun eredu. Paradisuaren ikuskera horrek zeresan handia du Lizarrako San Migel elizaren portadan. Ordea, eliza horretan, irudiak ordenatuagoak daude eta ez dago multzoen hierarkiaren arteko interferentziarik (Judizioaren atean aldiz, gizaki-bikote xeheen irudiak eta igarleenak nahasian ematen dira). Beste zenbait desberdintasun ere badira eszenategi bien planteamendu desberdinari lotuak. Izan ere, Lizarrako atean Kristo Pantokrator delakoaren ikuspen teofanikoa da nagusi, eta arkiboltetako pertsonaiek Paradisua, Jainkoaren gurtze-toki gisa moldatzen dute, halako moduan non zeruko taldeak, barrendik kanpo aldera ordenaturik dauden infernuaren behe-mailetaraino iristen baitira. Zangozako tinpanoan (5. irudia) Jainkoaren eskuin eta ezkerretara irudikatzen dira talde biak, aukeratuak zutik daude, ordenatuki emanak, otoitz jarreran eta jantziak, kondenatuak berriz, nahasian eta bilutsik, oinaze keinuak eginaz. Larunben, Paradisuko biztanleen zorianari kondenatuen aurpegiaren desitxuratu espresionista kontrajartzen zaio. Egiatan, eremu bien arteko kontzeptiozko desberdintasunak beste oinarri bat ere badu ordea. Paradisua Bibliaren kanonei lotzen bazaio ere estuki, infernuaren sorreran eskatologiaren eta herri-pentsakeraren eragina duten hainbat elementu ageri da.

Kondenatuek infernua jasaten duten tormentu nagusia suarena da, bekatu guzti-guztiei aplikatzen zaiena, hutsegite bakoitzari dagokion zigor zehatzaz gain. Tormentu horren irudikapenari sugarak dagozkio, Tuterako infernuko kondenatuen kasuan gertatzen den lez, edo galdararen bidez, Lizarrako Erregeen Jauregian (6. irudia) edo San Pedro de la Rúa-ko klaustroaren Anastasian. Galdarak bizirik ez dagoen infernu-itxura moldatzen du, arte erromanikoaren infernu organikoa ez bezalako. Iturburu biblikoak ditu moldatze modu horrek (Joben liburuan deskribatzen den tortura-lekua, 41, 11-12). Beste zenbait infernutan, Lizarrako San Migeleko portadakoan esaterako, zigor-lekua irudikatzeke, mustroaren belarrian sartutako hauspoa da sugarren erreferentzia-modua, edota Tuterako klaustroan bertan gertatzen den lez, ahotik bertatik irteten diren sugarren bitartez aditzera eman nahi da hura.

Bestalde, bekatu bakoitzari aplikatzen zaizkion **zigorrak garai hartako zuzenbidean hein batean bizirik zirauen tradizio biblikoari dagozkio**, Talioiaren legeari hain zuzen. Nola arte irudikapenetan, hala beste munduko ikuspeneetan, bekataria hutsegitea beste bizitzan oinaze-modu bihurtuko zaio. Bekatariei aplikatzen zaizkien zigorrak, non edo nola egin duen bekatu adierazten digute, hartara zigor-legeak zien lege-hauste egin duen esango baitigu. Nafarroako erromanikoan zizelatutako infernuek identifikatu gabeko bekataria taldeak zigortzen dituzte edo garaiko biziorik jazarrienak jotzen: haragikeria eta zikoizkeria hain zuzen.

Gizartearen sekularizazio prozesuak, hiriaren hazkundearekin eta monastegietako bizitza itzaltzearekin bat, ekarri zuen, ordura arte bekatuetan nagusi zen harrokeria alde batera utzi eta beste mota bateko bekatuzko joerei lehentasuna ematea. Haragiaren bizioak nagusitu ziren horrela, eta baita ondasunak pilatzeko grina ere. Horiez gain maiz irudikatzen dira, nahiz eta lekupena infernuaren errepresentazioetik kanpo izan, gula, harrokeria, nagitasuna eta amorrua.

Haragikeriaren zigorra maiz agertzen da irudikatzen. Erdi Aroko tenplu guztietan infernuko izakien eraso jasaten dute haragikerian eroritakoek: sugeak eta apoak bularretik eta sexutik helduta, horiek dira eta bekatuaren objektuak (7).

irudia). Irudi horien aurrekoak garaiko plastikan eta literaturan daude, bekatariek infernua zer nolako zigorra jasaten duen deskribatzen dutenak. Emakume adulteroei dagokienez, Etienne de Fougères, 1168 eta 1178 artean Rennesko apezpiku izandakoaren hitzak dira adierazkorren, *Libro de las Maneras* delakoan idatzitakoak: “Apoak, sugeak eta dortokak zintzilikuturik titi bilutsietatik. Ai! Zein gaizki ikusiak izan ziren orduan maitale arinen maitakeriak”. Erromanikoan emakumeari egozten zitzaion haragikeriaren pekatuaren eragile izatea. Azkenik, Tuterako Judizioaren Atariko dobela batean, gizona eta emakumea lotuta daramatza deabru batek, eta goiko dobela, zigorra hartzen dute sutan dagoen galdaran. Berriro ere, ezkon-hausleek zigorra jasaten dute Tuterako katedralean metalezko xaflen artean -gonak antza- erretzen dituztela, deabru batek zanpatzen dituen bitartean (8. irudia).

Halaber, haragikeriaren bekatuarekin erlazionatua dagoen homosexualitatearen bizioa ere nabarmentzen da Tuterako infernua. Deabru batek homosexualak garraiatzen ditu barrabiletatik zintzilik eta ahozpe jarriak, modu horretara inbertitua iruzaraz oiroitarazi nahi dela. Homosexualitatearen bekatutzat hartu behar dela uste dugu zazpigarren arkioltako hirugarren dobela kokaturik dagoena: deabru batek borraz jotzen du ipur-masailean bilutsik eta ingude baten gainean dagoen kondenatu bat. Santa Eulaliaren meza liburuan, beranduagokoa bada ere (XV. mende hasera), Azken Judizioa irudikatzerakoan infernuko zigorrak errepresentatzen dira, sodomia haien artean (deabru batek suzko ziriaz belauniko dagoen homosexual baten ipurdia zehatzen du eta, kondenatuaren atsegina aurpegiatik, zigorrak bekatu horrekin zerikusia duela ematen da aditzerak). Tuterako katedralako infernuak aniztasuna erakusten du haragiaren bekatua irudikatu eta kondenatzerakoan, baina, aldi berean, apo-sugeek erasotutako emakumearen irudikatze klasikoa agertzen du, ispilua erakusten dioten deabruak laguntzen diotela. Multzo bereko beste dobela batek emakume biluzi bat erakusten du deabru bat duela sorbalda gainean, dagokion zigorrera nekez hurbiltzen den bitartean, deabrua ileetatik tiraka ari zaio, sare bat zabaltzen dio aurrean eta atzean duen beste deabru batek burdinezko ziriekini xaxatzen du.

Zikoizkeria da infernu erromaniko eta gotikoetan bekatu kondenatuetarikoak. Zikoizkeriaren errepresentazio maizena ondasun poltsa lepotik zintzilik eta txanponen pisua jasaten ari den lukurrarena da. Zigorra areagotzen da bekataria infernuaren ahoan sartzen dutenean, Garesko Santioko portadan ageri den bezala, edo Nafarroako Erregeen Jauregian, lukurra infernuko galdatara daramatenekoan. Zangozako Santa Mariaren portadak aldaera interesgarria du hemen, arkioltak batean irudikatutako dagoen emakume zikoitzarena. Anekdotikoagoa gertatzen da Lizarrako San Migeleko portadan azaltzen den bekatu horren kondena, bertan, gizon bat eta emakume bat, soka batez loturik, arrastaka daramatzate aker buruko deabru dragoi batengana (9. irudia). Kondena horretarako ereduak daude Biblian: Judas traidorea, txanpon poltsaren pisuaz urkatua (Mateo 27, 5), eta Zangozako portadan ageri dena. Frantziako zenbait irudik Judasen suizidioa irudikatzen dute, besteak beste, Autun-eko San Lazaroko kapitela eta Saint Andoches de Saulieu-ko beste bat dira aipagarri (Borgoñan kokaturikoak biak). Judasen azkenak bide ematen du urkabea zikoitzei ezartzen zaien zigoretako bat izan dadin, Santa Fe de Conques-eko Infernua eta Santiago de Compostelako katedralako nabe bateko kapitela batean ikus daitekeenez. Bibliaren bitartez ezagutzen dugun Epulon bera da zikoizkeriaren beste pertsonifikazio garbia. Haren irudikapenak halako arrakasta bat lortu zuen, aurrerago aipatu legez, Nafarroako erromanikoan, eta baita Europakoan ere, haren heriotza eta kondenazioa gaztigua baita eszena horiei so dagoenarentzat.

Zikoizkeriaren irudikapen aurreratuagoek bekatariaren jardueraren arabera agertzen dute bekatu hori. Eskultura monumentalean irudikatu lanbideak aztertzerakoan ohartzen gara multzo jakin batzuetan korporazio-jarduerak irudikatzen direla; eta lanbide horiei loturiko bekatua agertzen da, iruzurra, hain zuzen ere. Oihal saltzaileen irudia halakoa da. Infernuzko oihalen zama astuna gainean daramala eta neurria ezkerreko eskuan duela. Eszenak, diruzaleen jarduerari egozten zitzaion zigoretako bat adierazten du. Infernua indarrean den legearen arabera, oinaze tresna bihurtuko baitira ondasunak eremu horretan. Zigor horren irudikatze-molderik ankerrena Parmako Fornovo di Taro-ko elizaren infernua dago: bertan, gizonetako zikoitz batek hiru txanpon-zakuto daramatza lepotik behera zintzilik, deabru batek diru-kutxa astun bat jartzen dio sorbalda gainean, eta beste deabru batek kizkiarekin mingainean eraso egiten dio. Tuterako Judizioaren Ateko beste dobela batean zikoitzari ahoa irekitzen diote deabruak kurrikak eta bizi-bitartean pilotutako ondasunen sinbolo diren bola handi batzuk sartzen dizkiote zintzurrik behera (10. irudia). Pilotutako aberastasunak irentsi behar hori Tuterako elizan baino lehenagotik, Landsberg-eko Herrade-ren *Hortus Deliciarum* delakoaren infernua irudikatzen dira. Bertan, lukurrari suzko txanponak eskuetara jaurti eta diruz betetako zaku bat ahotik bera ustutzen diote. Santa Fe de Conques-eko deabru batek berriz, -gure interpretazioan behintzat- irenstaratzen dio bere dirua zikoitz bati. Kondena egiten den modua ere jaunartzearen parodia bihurtzen da, ezen, bekatariak, lurra belauniko, ahoa irekitzen du deabru batek txanpon poltsa hustutzen dion bitartean.

Tuterako portadako zenbait irudikapenetan ondasunak irentsi behar izateaz gain, lukurrari mingaina erasotzen zaio. Txanpon-mahaian jezarrita dagoen kanbistari berriz, deabru batek gakoak ahoa irekitzen dio, beste deabru bat mihia kurrikez zigortzen ari zaion bitartean. Goragoko eszena batean diru-trukatzaileak, trukerako taula ezkerreko eskuan helduta daramala, ahoa ireki eta deabruen suzko zigorra jasan behar du. Portada berean, lepoan ondasun-poltsa daraman beste zikoitz bati suge batek ozkatzen dio mihia. Zigor-lege horrek badu zerikusirik San Pauloren ikuspenera deritzon testuarekin, bertan, lukurrei, mihia moztzen zaie eta. Beranduagoko testu batean, Heisterbach-eko Zesareoren *Dialogus miraculorum*-ean, deabru batzuk mihia kentzen diote legelari zeken bati. Ahoko zigorra dagokio ere lanbide batean jarduteko zina hautsi duen guztiari. Ordea, ahotik irtendako hainbeste bekatu egin duen biraolariari ezartzen zaion zigorra ere bada. **Neke-modu horrek antzekotasun interesgarriak ditu Nafarroako zuzenbide penalariekin.** Carlos III.aren *Amejoramenduan* jokoa debekatzen da jokalariek eragindako kalteak direla eta. Haiei ezartzen zien zigorra biraolari, hiltzaile eta iruzur-egileei ezartzen zaiena bera da: “Condenado a multa de 18 libras fuertes al que *dixere mal de Dios o de Santa María o de cualquier santo o santa o a ser colocado en la picota enclavada la lengua* quien renegare de Dios o de Santa María o a ser azotado el que hubiere renegado de los santos”. Tuterako portadako dobela bat osorik hartzen duen zigor baten irudikapenean, bekatariak, ustez, “etengabe ematen diote buelta” gupil bati, bertara mingaina lotuta, ibai baten ondoan, txandaka bertan murgiltarazten dituztela (11. irudia). Kondenatuek

zikoitzaren ezaugarri garbirik ez dutenez, zin-hausle, biraolari nahiz gezurtiak ere izan daitezke. Gurpilaren eta ibaiaren oinazeak infernuko eszenategiari dagozkio eta bi-biak agertzen dira beste mundua deskribatzen diguten elezaharretan.

Tuterako portadako hiru dobeletan agertzen den deabruak zin-hausleei eskuak ozkatzen dizkiela (eskuek zin egitearen ekintzan parte baitute) ematen du; baina, lapurrak ere izan daitezke kondenatu horiek. Haragiaren pisu eta kalitatean iruzur egin duten harakinei berriz deabruak eraso egiten die neurriak manipulatu dituztelako (12. irudia).

Tuterako Judizioaren Ateko infernuak zehaztu gabeko beste kondena batzuk ere erakusten dizkio ikusleari, beti ere, gizarte-maila jakin baten ezaugarriak dituzten bekatariei ezarritakoak. Artisauak errepresentatu dituen bezala, beste dobelak batzutan, deabruak elizgizonak zigortzen ditu. Ez da ordea, zergaitia adierazten. Baina, bekatarien ezaugarriak garbi aski ematen dira. Abade bat, bakulu eta monje jantziagatik ezagutzen dena oinaze aurpegiz ageri da, bere orden bereko monje bat lagun duela, biak ere, zakur itxurako deabru batek daramatza (13. irudia). Beste dobelak batean, bakuludun erlijioso bat ageri zaigu apaiz baten ondoan, soka batez loturik deabruak tira egiten die. Hirugarren eszena batean deabru oldartsu batek apezpikuari mitra kentzeko keinua egiten du. Gizarte-maila hori ere infernua errepresentatzeak mailen arteko berdintze asmo bat erakusten du, ez baitu gizarte-talderik zigorretik kanpo uzten. Horrelako irudiak beste infernu ezagunetan ere aurki daitezke: Santa Fe de Conques-ekoak esate baterako, elizgizonen gain, garaiko monastegi buru izan ziren batzuk ere kondenatzen dituzte. Zigor horien bitartez, maila jasoko pertsona apalarazi nahi dela ematen du. Conques-en bertan abadea belaunikarazten da eta zalduna zalditik behera botatzen. Tuterako Judizioaren azken arkiboltako bekataria apezpikua da, ustez, apezpiku-bereizgarriak kentzeko zigorra merezi izan duena. Aurreko arkiboltan berriz, zalduna, lantzas armatua, deabruak haren arima infernura daramala. Hurrengo dobelako bi deabru hegalarik kaskodun zalduna jazartzen dute. Kondenatuaren burua bakarrik errepresentatzeak noblearen kondena hareagotzea du helburu. Horrela beraz, Judizioaren Atean gizarte talde guztiak eta beren bekatuak zigortzeko asmoa garbi agertzen da.

Tuteran bertan, ikuslearengandik oso gertu geratzen den dobelak batean infernuaren erregea agertzen da: Satanen irudia bere aulkian jezarrita, aginte keinua egiten duela. Bere aginpidea erakusteko ondoan menekoak errepresentatzen dira, nahiz eta kate batzuren pisuak haren irudi erregetiarra apaltzera egiten duten, errege garaituaren itxurak emanik. Arteak, literaturak bezala, Satanen ikuskera izugarri hori ematen du, zerbitzariez inguratutako errege gisa. Geronako Beatoan dago deabru erregetiarren eta kondenatuen irudikatze zaharrenetako bat. Santa Fe de Conquesen berriz, beranduago irudi batean, deabrua kateaturik ageri da bere errege-aulkian jezarrita. Infernuko hierarkiaren ideia hori, deabruaren printzeaz eta bere gortean ari den Bibliako pasarte batetik aterea da. San Paulok Efesoarrei egindako Gutunean (6, 12) esaten da: "Gure borroka, izan ere, ez da hezur-mamizko arerioen aurkakoa, goiko izpiritu gaiztoen aurkakoa baizik, mundu ilun honetako aginte, ahalmen eta botereen aurkakoa"- infernuko iherarkiaren berri ematen du, aingeruena bera orotarazten duena. Printzearen eta bere jarraitzaileen ideia horrek beste munduari buruzko ele-zaharretan eta tradizioetan du oinarria.

Laburbilduz, infernuko eszenategitik ondorioztatzen den ideia, mundua azpikoz-gain, hankazgora, iraulita dagoela da. Alde batetik, Satan eta bere gortea ordena sakratuaren parodia bat da, hierarkia zerutiarraren kopia bat. Giroa zerukoaren aurkakoa izanik, bekatariei jartzen zaizkien zigorrek bizi-bitartean egindako hobenak gogorarazten ditu, pekataria bere hutsaren biktima bihurtzen dela adierazteko. Gaizkiaren munduaren irudikapena aintzinateko eta Erdi Aroko teologoek onaturiko pentsamenduaren gauzate plastikoa besterik ez denez, mundu negatibo horri izateko arrazoia ematen diona mundu positiboaren existentzia bera da. Tertulianoaren iritziz (III. mendea), gaizkia ez da berez printzipio bat, Jainkoaren ukapen soila baizik, alegia, ongiaren mozorroa edo ongiari egindako iruzurra da. Hartarako deabrua bera errepresentatzeko Jainkoaren irudia erabiltzen du, baina, tximinoz jantzita: "Deabrua, *diabolus*, esandako guztiaren gezurraren jaun da". Origenesek (III. mendea) ere gaizkia ez-izate bat besterik ez dela defendatzen jarraitzen du. Lactanciok (III. mendea) zertzelada berri bat ematen dio gaizkiaren ulermenari esaten duenean gaizkia ez datorrela onetik, elkarren osagai direlako gaizkia eta ongia. Infernua, deabrua eta bere jarraitzaileak ongiaren *alter ego*-a dira, eta Jainkoa baden neurrian bakarrik existitzen dira. Ideia horrek dakar mundu positibo gauza guztien printzipio bakarra dela sinestea, eta mundu negatibo berriz, onetik bere oldez jalgi dena besterik ez dela. Hartara, sorburu independentea duten bi printzipioz diharduten diskurtso manikeistetatik aldentzea lortzen baita. Gizakiaren formulazio ontologiko horretatik haren presentzia deskribatzen duten beste kultura-agerpideak, hala nola, arteak eta literaturak, biziago eta xehetasunetan aberatsago izanik, jarraikortasuna ematen diote burubide horri.

BIBLIOGRAFIA

BASCHET, J.; *Les justices de l'au-delà: Les représentations de l'enfer en France et en Italie (XIIème-XVème siècle)*, Roma, 1993; IZU BELLOSO, M.J.; *El juego de azar en el derecho histórico*, en "Revista jurídica de Navarra", (1994); LE GOFF, J.; *El nacimiento del Purgatorio*, Madrid, 1989; MARINO, B.; *Sicut in terra et in inferno: La portada del Juicio de Santa María de Tudela* en "Archivo Español de Arte", (1989), pp. 159-168; MARTIN DUQUE, A.J.; *El Camino de Santiago en Navarra*, Pamplona, 1991; PATCH, H.R.; *El otro mundo en la literatura medieval*, México, 1956; PEREZ DE URBEL, J.; *Los monjes españoles en la Edad Media*, 2ª ed, t. I, Madrid, 1954; RUSSELL, J.B.; *Lucifer: the devil in the Middle Ages*, London, 1984; RUSSELL, J.B.; *The prince of darkness: radical evil and the power of good in history*, New York, 1993; SALINAS QUIJADA, F.; *Estudios de historia del derecho foral de Navarra*, Pamplona, 1978; WEIR, A. y JERMAN, J.; *Images of lust*, London, 1986.